Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 3a, osteguna — 42 — Jueves, a 3 de marzo de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORDIZIAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2021eko abenduaren 23an egindako osoko bilkuran, onartu zuen aurrekontua gauzatzeko araua aldatzea.

Dagoeneko amaitu da jendaurreko informazio epea. Inolako alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onarpena eman zaio.

Aurrekontua gauzatzeko araua 2022.

I. titulua. Arau orokorrak eta kreditu aldaketak.

1. kapitulua. Arau orokorrak.

2. kapitulua. Kreditu aldaketak.

II. titulua. Gastuak.

1. kapitulua. Arau orokorrak.

2. kapitulua. Aurrekontu-Kudeaketa.

3. kapitulua. Administrazio prozedura.

4. kapitulua. Justifikatu beharreko ordainketak. kutxa finkoko aurrerakinak eta aplikatu gabeko aldez aurreko ordainketak.

III. titulua. Kontratu txikiak.

IV. titulua. Diru sarrerak.

V. titulua. Finantza eragiketei buruzkoa.

VI. titulua. Aurrekontua likidatzea.

VII. titulua. Kontrola eta fiskalizazioa.

### I. TITULUA

### ARAU OROKORRAK ETA KREDITU ALDAKETAK

#### 1. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

*1. artikulua. Iraupena.*

Arauak aurrekontuaren iraupen bera izango du, eta aurrekontua luzatzen bada, luzapenean ere arau hau egongo da indarrean.

*2. artikulua. Funtzio eremua.*

Aurrekontua gauzatzeko arau hau, Udalaren aurrekontua gauzatzean aplikatuko da, ondoren egingo diren zehaztapenak kontuan hartuta.

*3. artikulua. Aurrekontu orokorra.*

Ekitaldirako Aurrekontu orokorra osatzen dute:

— Udalaren aurrekontu propioa.

— Herri Antzokia Organismo Autonomoa.

— Majori Kiroldegia SL Sozietatea.

— Ordizia Lantzen SA Sozietatea.

Sozietateari emandako ekarpen gisa onartutzat jotzen dira udal-aurrekontuan banaka eta partida independenteetan agertzen diren zenbatekoak.

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 23 de septiembre de 2021, aprobó modificar la norma de ejecución presupuestaria.

Transcurrido el plazo de información pública, no habiéndose presentado alegación alguna, ha quedado definitivamente aprobada la misma.

Norma de ejecución presupuestaria 2022.

I. título. Normas generales y modificaciones de crédito.

1. capítulo. Normas generales.

2. capítulo. Modificaciones de crédito.

II. título. De los gastos.

1. capítulo. Normas generales.

2. capítulo. Gestión presupuestaria.

3. capítulo. Procedimiento administrativo.

4. capítulo. Pagos a justificar, anticipos de caja fija y pagos anteriores pendientes de aplicación.

III. título. Contratos menores.

IV. título. De los ingresos.

V. título. De las operaciones financieras.

VI. título. liquidación del presupuesto.

VII. título. Control y fiscalización.

### TÍTULO I

### NORMAS GENERALES Y MODIFICACIONES DE CRÉDITOS

#### CAPÍTULO 1. NORMAS GENERALES

*Artículo 1. Ámbito temporal.*

La Norma tendrá la misma vigencia que el Presupuesto y si éste ha de prorrogarse, regirá en el periodo de prórroga.

*Artículo 2. Ámbito funcional.*

La presente Norma se aplicará a la ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento, teniendo en cuenta las particularidades que se detallen.

*Artículo 3. Presupuesto general.*

El Presupuesto General para el ejercicio está integrado por:

— El Presupuesto del propio Ayuntamiento.

— Organismo Autónomo Herri Antzokia.

— Sociedad Municipal Majori Kiroldegia SL.

— Sociedad Municipal Ordizia Lantzen SA.

Se consideran aprobadas como aportaciones a la Sociedad, las cantidades que figuran en el presupuesto municipal de forma individualizada y en partidas independientes.

EK\CV GAO-I-2022-01041

*4. artikulua. Aurrekontuaren egitura.*

Aurrekontu Orokorraren egitura bat dator abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuarekin (Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena).

Gastuen egoeran sartutako kredituak irizpide hauen arabera sailkatu dira:

a) Ekonomikoak: gastuaren ezaugarrien arabera.

b) Programaren arabera: Udalak egin beharreko programen eta jardueren arabera.

c) Organikoak: Udalaren antolamendu-egituraren arabera.

Ekonomikoen, programen eta organikoen arabera egindako sailkapen horren batura da aurrekontu-partida, eta unitate horren gainean egingo da kredituen, kreditu-aldaketen eta gastuen kontabilitate-erregistroa.

Diru-sarreren aurreikuspenak irizpide hauen arabera sailkatu dira:

a) Ekonomikoak: diru-sarreraren izaeraren arabera.

b) Programen arabera: partida zehatz batzuetan.

*5. artikulua. Kredituen lotura juridikoak.*

Aurrekontu Orokorrean baimendutako helburu zehatzetarako soilik izango dira gastuetarako kredituak, edo, bestela, behar bezala onartutako aurrekontu aldaketetarako, eta mugatzaileak eta lotesleak izango dira.

Ondorioz, ezingo da kreditu horien zenbatekotik gorako gastu-konpromisorik hartu. Beraz, arau hori hausten duten akordio, ebazpen eta egintza administratiboak erabat baliogabeak izango dira, eta erantzukizunak ere ekar ditzakete.

Muga hori betetzen ote den egiaztatzeko, hurrengo puntuan jarritako lotura juridikoaren maila hartuko da kontuan.

— Kapitulua:

Pertsonaleko gastuei buruzko gastuetan.

— Programa eta kontzeptua:

Transferentzia eta dirulaguntzetan (arruntak nahiz kapitalezkoak), inbertsio errealetan eta finantza aktiboen aldakuntzetan (4, 6, 7 eta 8 kapituluak).

— Programa eta kapitulua:

Ondasun arrunten erosketetako gastuetan eta 2. kapituluko zerbitzu gastuetan.

— Elkarri lotuta gelditzen dira 3. kapituluko finantza gastuak eta 9. kapituluko pasiboen finantza gastuen aldaketak.

*6. artikulua Lotespen juridikoaren ondorioak.*

Gastuaren kontrol kontu-hartzailea, lotura-mailak zehaztutako mugaren arabera egingo da.

## 2. KAPITULUA. KREDITU ALDAKETAK

*7. artikulua Kreditu aldaketak.*

Aurrekontu-kredituak aldatu ahal izango dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren V. kapituluan ezarritakoaren arabera.

Nahiko kreditu eduki gabe ere, lotura juridikoaren mailatik gorako gastu bat egin behar denean, dagokion kreditu-aldaketako espedientea izapidetuko da, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauko 28. artikuluan zerrendatutakoen artetik bat aukeratuta, eta Aurrekontua Gauzatzeko Arau honetan adierazitako zehaztasunekin bat etorriz.

*Artículo 4. Estructura presupuestaria.*

La estructura del Presupuesto General está ajustada al Decreto Foral 86/2015 de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa.

Los créditos incluidos en el estado de Gastos se han clasificado con los siguientes criterios:

a) Económico: Según la naturaleza del gasto.

b) Por programas: Según los programas y actividades a realizar por el Ayuntamiento.

c) Orgánico: Según la estructura organizativa del Ayuntamiento.

La partida presupuestaria, definida por la conjunción de las clasificaciones económica, por programas y orgánica, constituye la unidad sobre la que se efectuará el registro contable de los créditos, sus modificaciones y las operaciones de ejecución de gasto.

Las previsiones de ingresos se han clasificado según los siguientes criterios:

a) Económico: Según la naturaleza del ingreso.

b) Por programas: Algunas partidas concretas.

*Artículo 5. Vinculaciones jurídicas de los créditos.*

Los créditos para gastos se destinarán exclusivamente a la finalidad específica para la cual hayan sido autorizados en el Presupuesto General o por sus modificaciones debidamente aprobadas, teniendo carácter limitativo y vinculante.

En consecuencia, no podrán adquirirse compromisos de gasto en cuantía superior al importe de dichos créditos, siendo nulos de pleno derecho los acuerdos, resoluciones y actos administrativos que infrinjan la expresada norma, sin perjuicio de las responsabilidades a que haya lugar.

El cumplimiento de tal limitación se verificará al nivel de vinculación jurídica establecida en el punto siguiente.

— Capítulo:

En los gastos relativos a gastos de personal.

— Programa y Concepto:

Transferencias y subvenciones por gastos corrientes y de capital, inversiones reales y variación de activos financieros (capítulos 4, 6, 7 y 8).

— Programa y capítulo:

Gastos relativos a compras de bienes corrientes y servicios del capítulo 2.

— Gastos financieros del capítulo 3 y variación de pasivos financieros del capítulo 9 quedan vinculados conjuntamente.

*Artículo 6. Efectos de la vinculación jurídica.*

El control interventor del gasto tendrá lugar respecto al límite definido por el nivel de vinculación.

## CAPÍTULO 2. MODIFICACIONES DE CRÉDITO

*Artículo 7. Modificaciones de crédito.*

Los créditos presupuestarios podrán ser modificados de conformidad con lo establecido en el capítulo V de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Cuando haya de realizarse un gasto que exceda del nivel de vinculación jurídica, sin que exista crédito presupuestario suficiente, se tramitará el expediente de modificación de créditos que proceda, de los enumerados en el artículo 28 de la Norma Foral 21/2003 presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa, con sujeción a las particularidades reguladas en esta Norma de Ejecución Presupuestaria.

EK\CV GAO-I-2022-01041

Kreditu-aldaketak izapidetzeko Sareko aplikazio informatikoa erabiliko da. Sail bakoitzeko arduradun teknikoek izapidetuko dituzte eskaerak, aldaketaren zergatia arrazoituz.

Udaleko kontu-hartzailetzak kreditu-aldaketa guztiei buruzko txostenak egingo ditu, eta horietako bakoitzari hurrenkeraren araberako zenbakia jarriko dio, gero Kontu Nagusian justifikatzeko.

Lotura juridikoko poltsa baten barruan beste aurrekontu-partida bat sortzen bada, hori kontuen doitzea izango da, eta, beraz, ez da hartuko kreditu-aldaketatzat. Aurrekontu-partida horrek ez du zenbatekoa aldatzen, eta egindako gastuari buruzko informazio zabalagoa eskaintzen du.

Era berean, 6., 7. eta 8. kapituluetan aurrekontu-partidak sortu ahal izango dira, aurrekontuan aurreikusitakoaz bestelako jarduerak egiteko, baina helburu berarekin, eta aurrekontu-zuzkidura jasoko dute kredituen transferentzia bidez.

*8. artikulua Kreditu transferentziak.*

Gastu bat egin nahi bada eta partidaren kreditua nahikoa ez bada, baina lotura juridikoko maila desberdinei dagozkien beste partida batzuen kreditua murriztu badaiteke gastuen egoera-orriaren zenbateko osoa aldatu gabe, kredituen transferentzia-espediente bat onartuko da.

Programa beraren barruan kreditu-transferentziak onartzeko organo eskuduna toki-erakundeko lehendakaria izango da, inbertsio errealetarako aurreikusitako kontsignazioak murrizten dituztenak izan ezik, horiek korporazioko osoko bilkurak onartuko baititu.

Era berean, hainbat programatako partidei eragiten dieten kredituen transferentzia-espedienteen onarpena toki-erakundeko lehendakariak onartuko du, baldin eta jatorrizko eta helmugako programen aldaketen aldaketa metatuak ez badu gainditzen hasieran aurreikusitako kontsignazioen % 25, eta inbertsio errealetarako kontsignazioak murrizten ez badituzte.

Espedientea gastua handitu behar duen sailak hasiko du, eta eragindako zinegotzi arduradunen adostasuna eta Udal kontu-hartzailetzaren nahitaezko txostena izan beharko ditu.

*9. artikulua Kredituak gaitzea.*

Gastuen egoera-orrian kreditua sortu ahal izango dute honako hauetatik datozen diru-sarrerek:

a) Pertsona fisiko eta juridikoen ekarpena edo ekarpen-konpromisoa, Udalarekin batera haien eskumeneko gastuak finantzatzeko.

b) Ondare-ondasunak besterentzea, aurreikusi gabeko Hirigintza-aprobetxamenduak.

c) Zerbitzuak ematea.

d) Maileguak itzultzea.

Diru-sarrera finalistengatik kredituen gaikuntza onartzeko organo eskuduna toki-erakundeko lehendakaria izango da.

Espedientea Udal kontu-hartzailetzak hasiko du.

*10. artikulua Kreditu-gerakinak txertatzea.*

Udalaren gastuen indarreko aurrekontuan sartu ahal izango dira aurreko ekitaldiko ordainketa-kredituak, baldin eta 21/2003 Foru Arauaren 32.1 artikulua betetzen badute.

Gerakinak txertatzeko beharrezkoa izango da behar adina finantza-baliabide egotea. Gerakinen txertaketa finantzatzeko jatorrizko ekitaldiko finantza-baliabideak badaude, txertaketa Alkateak onartuko du.

Kreditu txertagarri guztiak txertatzeko adina finantza-baliabiderik ez badago, Alkateak, aurrez udaleko kontu-hartzai-

Para la tramitación de las modificaciones de crédito se usará la aplicación informática Sareko. Los responsables técnicos de cada departamento tramitarán la solicitud, razonando el porqué de la modificación.

Todos los expedientes de modificación de créditos deberán ser informados por la Intervención Municipal y serán enumerados correlativamente a efectos de justificación en la Cuenta General.

No se considerará modificación de créditos sino un ajuste contable, la creación de una partida presupuestaria dentro de una bolsa de vinculación jurídica que sin suponer variación cuantitativa de la misma proporciona una mayor información sobre el tipo de gasto realizado.

Igualmente se podrán crear partidas presupuestarias en los capítulos 6, 7 y 8 para realizar actuaciones de modo diferente al previsto en el Presupusto pero con las misma finalidad y que recibirán dotación presupuestaria vía Transferencia de Créditos.

*Artículo 8. Transferencias de crédito.*

Cuando se pretenda realizar un gasto y el crédito de la partida sea insuficiente pero es posible minorar el crédito de otras partidas correspondientes a diferentes niveles de vinculación jurídica sin alterar el importe total del estado de gastos, se aprobará un expediente de transferencia de créditos.

El órgano competente para aprobar las transferencias de crédito dentro de un mismo programa será del Presidente de la Entidad Local, salvo aquellas que minoren consignaciones previstas para inversiones reales, que serán aprobadas por el Pleno de la Corporación.

Asimismo, la aprobación de los expedientes de transferencia de créditos cuando afecten a partidas de distintos programas serán aprobadas por el Presidente de la Entidad Local cuando la variación acumulada de modificaciones en los programas de origen y destino no supere el 25 % de sus consignaciones iniciales previstas y salvo que minoren consignaciones para inversiones reales.

El expediente será incoado por el Departamento que precise el incremento de gasto debiendo llevar la conformidad de los Concejales responsables afectados y el informe preceptivo de la Intervención Municipal.

*Artículo 9. Habilitación de crédito.*

Podrán generar crédito en el estado de gastos los ingresos procedentes de:

a) Aportación o compromiso de aportación de personas físicas y jurídicas para financiar junto con el Ayuntamiento gastos de su competencia.

b) Enajenación de bienes patrimoniales, aprovechamientos urbanísticos no previstos.

c) Prestación de Servicios.

d) Reembolsos de préstamos.

El órgano competente para aprobar la habilitación de créditos por ingresos finalistas será el Presidente de la Entidad Local.

El expediente será incoado por la Intervención Municipal.

*Artículo 10. Incorporación de remanentes de créditos.*

Se podrán incorporar al presupuesto vigente de gastos del Ayuntamiento los créditos de pago del ejercicio anterior que cumplan las condiciones de establecidas en el art. 32.1 de la NF 21/2003.

La incorporación quedará subordinada a la existencia de suficientes recursos financieros para ello. Si existen recursos financieros del ejercicio de procedencia para financiar la incorporación de remanentes, la incorporación, será aprobada por el Alcalde.

Si no existen recursos financieros para la incorporación de la totalidad de créditos incorporables, el Alcalde, previo informe

letzak txostena egin ondoren, lehentasunak jarriko ditu txertatu beharreko jardueretan; hala, kredituak eta eskura dauden baliabideak bat etor daitezen.

Txertatutako kredituek jatorrizko aurrekontuan zuten helburu bera izango dute.

*11. artikulua Kredituak aurretiaz txertatzea.*

* Aldez aurreko txertaketa.

Txertaketaren finantziazioa diruzaintzako gerakinaren bidez egiten bada, aurreko ekitaldiko likidazioa onartu aurretik baimendu ahal izango da, behin-behinean, beti ere kontu-hartzailetzaren txostena jasotzen bada. Horrelakoetan, kredituen aldez aurreko txertaketa behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren emango zaio behin betiko onespena (86/2015 Foru Dekretuaren 19. erregela).

Hurrengo ekitaldiko aurrekontuan txertatu ahal izango dira, likidazioa onartu aurretik, urteko aurrekontuari edo bere aldaketei dagozkien kredituak, abenduaren 31n obligazioa (O) aitortzeke dutenak eta honako baldintza hauek batera betetzen dituztenak:

— Toki-erakundeen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 32.1 artikuluan jasotako egoeraren batean egotea.

— Dagokion zerbitzuburuaren txostenaren bidez, kreditua aldez aurretik sartzeko beharra justifikatzea.

— Kreditu hori, aldi berean, ekitaldi honetan sartu ez izana, diru-sarrera finalistekin finantzatutako kapital-eragiketak direnean izan ezik.

Aurretiazko txertaketa ekainaren 30 baino lehenago egingo da, kasu guztietan.

Aurretiaz txertatutako kredituek jatorrizko aurrekontuan zuten helburu bera izango dute.

Behar adina finantza-baliabide egotearen mende egongo da aldez aurretiazko kreditu txertaketa.

Lehendakariak emango du kredituak aurretiaz txertatzeko baimena, kontu-hartzaileak txostena egin ondoren. Txosten horretan, besteak beste, finantzaketa nahikoa dagoela jasoko da.

Kredituak behin betiko txertatu baino lehen, aurreko artikuluetan arautzen diren behin-behineko ordainketak izapidetu ahal izango dira.

*12. artikulua Kreditu gehigarriak.*

Kreditu gehigarriak onartzeko eskumena Osoko Bilkurarena izango da; aldiz, lehendakariaren eskumenekoa izango da, baldin eta horien metaketak (kreditu gehigarrienak) aurrekontuaren hasierako kredituen % 5a gainditzen ez badu.

*13. artikulua Kredituak zabaltzea.*

Udaleko gastuen aurrekontu-partida hauek zabaldu egin daitezke, partida horietako bakoitzerako aurreikusitako diru-sarrerak gainditzen dituen kopuruaren arabera:

de la Intervención Municipal, establecerá las prioridades de las actuaciones a incorporar, a fin de ajustar los créditos a los recursos disponibles.

Los créditos incorporados lo serán con la misma finalidad que hubieran tenido en el Presupuesto de origen.

*Artículo 11. Incorporación anticipada de créditos.*

* Incorporación anticipada de créditos.

Cuando la financiación de la incorporación se realice a través de la utilización de remanente de tesorería, la misma podrá realizarse, provisionalmente, antes de su determinación a través de la liquidación del ejercicio precedente, siempre que conste el correspondiente informe de Intervención. En estos supuestos, la incorporación anticipada de créditos tendrá carácter provisional, y su aprobación definitiva se producirá una vez liquidado el Presupuesto (D.F. 86/2015 Regla 19).

Se podrán incorporar al Presupuesto del ejercicio siguiente, con anterioridad a la aprobación de la liquidación, aquellos créditos correspondientes al presente Presupuesto o sus modificaciones que se encuentren pendientes de reconocimiento de obligación a 31 de diciembre y que reúnan conjuntamente los siguientes requisitos:

— Que se encuentren en algunas de las circunstancias recogidas en el artículo 32.1 de la Norma Foral 21/2003, presupuestaria de las entidades locales.

— Que mediante informe del Jefe del Servicio correspondiente se justifique la necesidad de la incorporación anticipada del crédito.

— Que dicho crédito no haya sido objeto, a su vez, de incorporación al presente ejercicio, salvo que se trate de operaciones de capital financiadas con ingresos finalistas.

La incorporación anticipada se producirá en todo caso con anterioridad al 30 de junio.

Los créditos incorporados anticipadamente lo serán con la misma finalidad que hubieran tenido en el Presupuesto de origen.

La incorporación anticipada estará subordinada a la existencia de suficientes recursos financieros para ello.

La autorización de la incorporación anticipada de créditos corresponderá al Presidente, previo informe del Interventor de Fondos en que se recoja, entre otros, la existencia de financiación suficiente.

Con carácter anticipado a la incorporación definitiva de créditos, se podrán tramitar los pagos correspondientes a aquéllos cuya incorporación provisional se regula en los artículos anteriores.

*Artículo 12. Créditos adicionales.*

La competencia para aprobar los créditos adicionales será del Pleno de la Corporación, salvo aquellos que acumulativamente no supongan un incremento superior al 5 % de los créditos iniciales del presupuesto, cuya aprobación será competencia del Presidente de la Entidad.

*Artículo 13. Ampliación de créditos.*

Las siguientes partidas del Presupuesto de gastos del Ayuntamiento tienen el carácter de ampliables en función de la cuantía que supere a los ingresos previstos en la financiación que para cada uno de ellos se asigna:

| Gastu partida<br>Partida de gastos | G.P. kontzeptua<br>Concepto P.G. | Sarrera partida<br>Partida de ingresos | S.P. kontzeptua<br>Concepto P.I. |
|---|---|---|---|
| 1 227.07.931.00.0324 2022 | Kontr. zerbitzuak. Admin. finantz.<br>Contratos servicios. Administr. financiera | 2 112.01.000.00.0000 2022<br>2 112.02.000.00.0000 2022<br>2 113.01.000.00.0000 2022<br>2 114.01.000.00.0000 2022<br>2 130.01.000.00.0000 2022<br>2 282.01.000.00.0000 2022<br>2 310.01.162.10.0000 2022 | Hainbat<br>Varios |
| 1 227.09.931.00.0324 2022 | Diru-bilketa exekutiboa. Admin. finantz<br>Recaud. ejecutiva Administr. financiera. | 2 392.01.000.00.0000 2022<br>2 393.01.000.00.0000 2022 | Epealdi exekutiboko errekargua<br>Recargo apremio<br>Berandutza interesak<br>Intereses demora |
| 1 226.99.133.00.0202 2022 | Hainbat gastu. Trafiko kontrola<br>Gastos diversos. Control tráfico | 2 310.05.132.00.0000 2022 | Kaletik Ibilgailuak erretiratzeagatik tasa<br>Retirada de vehículos de la vía pública |
| 1 212.01.133.00.0202 2022 | Mak. mant. Tresn. Trafiko kontrola<br>Mant. maquin. utillaje. Control tráfico | 2 399.01.000.00.0000 2022 | Beste hainbat sarrera<br>Otros ingresos diversos (Rec. eventuales) |
| 1 227.04.231.10.0105 2022 | Kontrat.: Etxez etxeko Laguntz.<br>Contraro de asistencia domiciliaria | 2 420.03.000.00.0000 2022<br>2 310.15.231.10.0000 2022 | GFA Etxez-etxeko zerbitzua<br>Diputación - Etxez-etxe<br>Etxez etxeko laguntzaren tasa<br>Tasa Etxez-etxe |
| 1 480.02.231.30.0107 2022 | Larriald. Lagunt. Ongiz.saila<br>Ayuda emergencia. Bienestar social | 2 410.01.000.00.0000 2022 | Euskal Autonomi erkidegoko dirulagun. GLL<br>G.V.-Subvenciones AES |

Kontu-hartzailetzak beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, kreditua zabaldu egingo da.

Kreditu Globala ere zabaldu ahal izango da, baldin eta zergetako diru-sarreren gainean eskubide handiagoak aitortzen badira.

Espedienteari udaleko kontu-hartzailetzak emango dio hasiera; bertan, aurrekontu-oreka dagoela adierazten duen txostena sartu beharko du.

*14. artikulua Kredituen bajak.*

Alkateak kreditu-bajak eman ahal izango ditu honako kasu hauetan:

— Aurreko ekitaldiko likidazioaren diruzaintzako gerakinaren emaitza negatiboa izan denean.

— Diru-sarreren aurrekontuaren gauzatzean guztizkoak hasierako aurreikuspenetatik beherantz nabarmen desberdinak direnean.

II. TITULUA

GASTUAK

1. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

*15. artikulua Aurrekontuaren urtealdia.*

Gastuen egoera-orriaren kredituen kargura, ekitaldian burututako gastuetatik eratorritako obligazioak bakarrik hartu ahal izango dira.

Comprobado por la Intervención General que se cumplen los requisitos necesarios, se procederá a la ampliación de créditos.

Se declara igualmente ampliable el Crédito Global por los mayores derechos reconocidos correspondientes a ingresos tributarios.

El expediente será incoado por la Intervención Municipal e incluirá un informe sobre existencia de equilibrio presupuestario.

*Artículo 14. Bajas de crédito.*

El Alcalde podrá dar las bajas de crédito en los siguientes casos:

— Liquidación del ejercicio anterior con remanente de tesorería negativo.

— Ejecución del presupuesto de ingresos de forma tal que los totales difieren sustancialmente, en menos, de las previsiones iniciales.

TÍTULO II

DE LOS GASTOS

CAPÍTULO 1. NORMAS GENERALES

*Artículo 15. Anualidad presupuestaria.*

Con cargo a los créditos de estado de gastos sólo podrán contraerse obligaciones derivadas de gastos realizados en el ejercicio.

EK\CV GAO-I-2022-01041

Salbuespen gisa, indarrean dagoen aurrekontuko kredituei obligazio hauek aplikatuko zaizkie, aitortzen diren unean:

a) Pertsonalari zuzendutako atzerapenak likidatzearen ondoriozkoak; kasu hauetan hauek onestea Alkateari dagokio.

b) Aurreko ekitaldietan behar bezala hartutako gastu-konpromisoetatik eratorritakoak, kasu honetan obligazioak (txertatutako kreditu gerakinak).

c) Aurreko ekitaldietako gastuak, aurretik onartu ez zirenak. Kasu horretan, indarrean dagoen aurrekontua aplikatzeko saileko arduradun teknikoaren txostena beharko da, egozte posiblea egiaztatuz, ekitaldiko beharrei kalterik edo mugarik eragin gabe. Kasu hauek onestea Osoko Bilkurari dagokio.

*16. artikulua Gastuen kudeaketako faseak.*

Gastuen aurrekontua fase hauetan kudeatuko da:

a) Gastua baimentzea (A).

b) Gastua xedatzea edo konprometitzea (D).

c) Obligazioa onartzea (O).

d) Ordainketa agintzea (ME).

e) Ordaintzea (P).

2. KAPITULUA. AURREKONTU-KUDEAKETA

*17. artikulua Kreditu ez-erabilgarriak.*

Zinegotzi batek aurrekontu-partida baten kreditua exekutatzeko ardura izanik, hau guztiz edo partzialki atxikitzea beharrezkotzat hartzen badu, proposamen arrazoitua egingo du, eta Alkatetzaren adostasuna jaso beharko du.

Osoko Bilkurari dagokio kredituen erabilgarritasunik eza deklaratzea, bai eta kreditu horiek erabilgarri bihurtzea ere.

Erabilgarri ez dagoen saldo aitortuaren kargura ezingo da gastu-baimenik edo transferentziarik erabaki, eta horren zenbatekoa ezingo da hurrengo ekitaldiko aurrekontuan sartu.

*18. artikulua Gastuak baimentzea eta xedatzea (A eta D).*

Gastua baimentzea da gastu hori ordainketa-kreditu jakin baten eta, hala badagokio, konpromiso-kreditu baten kargura zenbateko jakin edo gutxi gorabeherako batez egitea erabakitzen duen egintza.

Gastua xedatzea da, dagozkion legezko izapideak egin ondoren, onuradun edo esleipendun baten alde zenbateko eta baldintza zehatzetako gastu bat egiteko egintza.

Gastua baimendu duen organo bera izango da hura onartzeko organo eskuduna. Gastuen xedapena egiteko, oro har, espediente bat osatu beharko da, eta horri «D» xedapenaren kontabilitate-agiria erantsiko zaio.

Alkateari edo zinegotzi delegatuari dagokio kontratu txikien gastuak baimentzea eta xedatzea.

Alkateari dagokio aurrekontuko baliabide arrunten % 10era iristen ez diren gastuak baimentzea eta xedatzea, beste organoei egindako eskuordetzeen kalterik gabe.

Osoko Bilkuraren eskumena da aurrekontuaren % 10etik gorako gastuak baimentzea eta xedatzea, beste organoei egindako eskuordetzeen kalterik gabe. Kasu hauetan, aurrez, kontuhartzailearen txostena behar da.

Espedientearen hasieran zenbateko zehatza eta hartzailearen izena jakiten direnean, kontabilitate-faseak «AD» kontabilitate-dokumentuaren bidez metatuko dira, Arau honen 22. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Excepcionalmente, se aplicarán a los créditos del presupuesto vigente, en el momento de su reconocimiento, las obligaciones siguientes:

a) Las que resulten de la liquidación de atrasos a favor del personal, correspondiendo el reconocimiento de las mismas al Alcalde.

b) Las derivadas de compromisos de gastos debidamente adquiridos en ejercicios anteriores (incorporación de remanentes de crédito).

c) Gastos de ejercicios anteriores cuya realización no fue aprobada con anterioridad. En este caso la aplicación al presupuesto vigente requerirá informe del Responsable Técnico del Departamento acreditando la posible imputación sin que se produzca perjuicio ni limitación para las atenciones del ejercicio. Corresponde al Pleno la aprobación de dichos casos.

*Artículo 16. Fases en la gestión del gasto.*

La gestión del Presupuesto de gastos se realizará en las siguientes fases:

a) Autorización del gasto (A).

b) Disposición o compromiso del gasto (D).

c) Obligación reconocida (O).

d) Ordenación del pago (ME).

e) Pago (P).

CAPÍTULO 2. GESTIÓN PRESUPUESTARIA

*Artículo 17. Créditos no disponibles.*

Cuando un concejal considere necesario retener, total o parcialmente, crédito de una partida presupuestaria, de cuya ejecución es responsable formulará propuesta razonada que deberá ser conformada por la Alcaldía.

La declaración de no-disponibilidad de créditos, así como su reposición a disponible corresponde al Pleno.

Con cargo al saldo declarado no disponible no podrán acordarse autorizaciones de gastos ni transferencias y su importe no podrá ser incorporado al presupuesto del ejercicio siguiente.

*Artículo 18. Autorización y disposición de los gastos (A y D).*

La autorización del gasto es el acto por el cual se acuerda su realización por importe cierto o aproximado con cargo a un determinado crédito de pago y, en su caso, crédito de compromiso.

La disposición del gasto es el acto por el cual se formaliza, una vez efectuados los trámites legales que sean procedentes, la realización concreta de un gasto por importe y condiciones exactamente determinadas a favor de un beneficiario o adjudicatario.

El órgano competente para su aprobación es el mismo que para la Autorización del gasto. La disposición de gastos, con carácter general, requerirá la formación de un expediente al que se incorporará el documento contable de Disposición «D».

Compete al Alcalde o al concejal delegado autorizar y disponer los gastos de contratos menores.

Compete al Alcalde autorizar y disponer los gastos cuya cuantía no alcance el 10 % de los recursos ordinarios del Presupuesto, sin perjuicio de las delegaciones a otros órganos.

Compete al Pleno de la Entidad Local la autorización y disposición de aquellos gastos cuya cuantía iguale o supere el 10 % de los recursos ordinarios del Presupuesto, previo informe de la Interventora y sin perjuicio de las delegaciones a otros órganos.

Cuando en el inicio del expediente se conozca la cuantía exacta y nombre del preceptor se acumularán las fases contables mediante el documento contable «AD» en los siguientes casos señalados en el artículo 22 de esta norma.

EK\CV GAO-I-2022-01041

*19. artikulua Obligazioak aitortzea (O).*

Obligazioa aitortzea da xedatu den prestazioa behar bezala egiaztatzeagatik administrazioari kreditu bat eskatzeko egintza.

Obligazioak aitortzeko organo eskuduna erakundeko Alkatea da, betiere legez eskuratutako gastuen ondorio badira.

Obligazioak aitortu aurretik, dagokion saileko arduradun teknikoak oniritzia eman beharko dio fakturari SarEko aplikazioaren bidez. Horrekin adieraziko du materiala, obra edo hornidura jaso dela eta harekin ados dagoela. Ondoren, arduradun politikoak emango dio adostasuna.

Kontratistek edota hornitzaileek egindako fakturak Udalean aurkeztuko dira, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera (fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena).

Fakturaren kobrantza ezingo da helbideratu, salbu eta gaur egun aukera hori lehendik daukatenek. Faktura helbideratuei eta energiaren hornidurei buruzkoei, tramitatu ondoren onespena eta adostasuna emango zaie.

*20. artikulua Ordainketa agintzea (ME).*

Ordainketak agintzea da Diruzaintzak obligazio bat ordaintzeko emandako agindua.

Ordainketa agintzea Alkatearen eskumena da. Fase honek «ME» dokumentua izapidetzea dakar.

Ordainketa agindua orokorrean, Diruzaintzak landutako ordainketa-aginduen zerrendetan oinarriturik burutuko da. Ordainketaren izaerak edo premiak hala eskatzen badu, ordainketa indibidualki burutu ahal izango da.

*21. artikulua Ordaintzea (P).*

Udal Diruzaintzak egingo ditu ordainketak, arau orokor gisa, indarrean dauden legezko eta erregelamenduzko irizpideei jarraituz.

Egindako ordainketen gauzatze materiala honako sistema hauen bidez egiaztatuko da:

a) Transferentziagatiko ordainketak: ordainketa-sistema normala izango da. Transferentziak hirugarrenak izendatutako kontu batean egingo dira, eta hiru klaberoen sinadurarekin baimenduko dira: Alkatea, Kontu-hartzailea eta Diruzaina, eta eskuesten dituen zerrendan jasota utzi beharko da, gutxienez, banku-erakundea, kontu-zenbakia eta ordainketak noiz egin diren.

b) Ordainagiriak eta zergak ordaintzea: jaulkitzaile-kodea, atzizkia, erreferentzia, identifikatzailea eta zenbatekoa dituzten ordainagiriak eta zergak ordaintzeko, sinadura bakarra beharko da: Diruzainarena.

c) Txeke bidezko ordainketak: ezohiko moduan erabiliko dira, izendunak izango dira eta hiru klaberoek sinatu beharko dituzte.

d) Eskudirutan egindako ordainketak: eskudiruzko kutxa bat izatea baimentzen da eguneroko eragiketetarako. Kutxa horren zenbatekoa txikia denez, ez da bidezkoa edo ez da oso eraginkorra gastua kudeatzeko prozedura orokorrera egokitzea, betiere, udal-zerbitzuen funtzionamenduaren eraginkortasunari eta efizientziari kalterik egin gabe. Funts horien titularra udal Diruzaina izendatzen da; erabilera agiri bidez egiaztatu beharko da gastu hori egin dela justifikatzeko, dagozkion fakturak aurkeztuz.

Obligazioa aitortzea onartu zaien pertsona fisiko edo juridikoek jasoko dituzte ordainketak, organo judizial edo administratiboek agindutako kredituak edo enbargoak lagatzen direnean izan ezik.

*Artículo 19. Reconocimiento de obligaciones (O).*

El reconocimiento de la obligación es el acto por el que un crédito es exigible a la Administración por haberse acreditado de forma satisfactoria la prestación objeto de disposición.

El órgano competente para reconocer las obligaciones es el Presidente de la Entidad, siempre que sean consecuencia de gastos legalmente adquiridos.

Con carácter previo al reconocimiento, el responsable técnico del departamento correspondiente deberá dar el visto bueno a la factura a través del aplicativo SarEko, con lo que indicará el acuse de recibo del material, obra o suministro y su conformidad con el mismo. A continuación lo hará el responsable político.

Las facturas expedidas por los contratistas y/o proveedores se presentarán en el Ayuntamiento, conforme a lo dispuesto por el Decreto Foral 8/2013, de 26 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento que regula las obligaciones de facturación.

El cobro de las facturas no podrá domiciliarse, salvo las que en la actualidad ya dispongan de esta condición. Las facturas domiciliadas y las referidas a suministros de energía se tramitarán, aprobarán y se les dará conformidad a posteriori.

*Artículo 20. Ordenación del pago (ME).*

Se entiende por Ordenación de Pagos la orden a la Tesorería para el pago de una obligación contraída.

El órgano competente es el Presidente de la Entidad Local correspondiente. Esta fase supone la tramitación del documento «ME».

La ordenación de pagos con carácter general se efectuará en base a relaciones de órdenes de pago que elaborará la Tesorería Municipal. Si la naturaleza o urgencia del pago lo requiere, la ordenación del mismo puede efectuarse individualmente.

*Artículo 21. Pago (P).*

La realización material de los pagos se efectuará por la Tesorería Municipal, como norma general, siguiendo los criterios legales y reglamentarios vigentes.

La realización material de los pagos efectuados se acreditará mediante los siguientes sistemas:

a) Pagos por Transferencia: Será el sistema normal de pagos. Las transferencias se harán efectivas en una cuenta designada por el Tercero y serán autorizadas con la firma de los tres claveros: Alcalde, Interventor y Tesorero y la relación que las autorice habrá de dejar constancia, como mínimo, de la entidad bancaria, número de cuenta y fecha de su realización.

b) Pagos de recibos e impuestos: Se utilizará en el caso del pago de recibos e impuestos que contengan código de emisor, sufijo, referencia, identificador e importe y se precisará de una única firma, la del Tesorero.

c) Pagos por cheque: Se utilizará con carácter extraordinario, serán nominativos y habrán de ser firmados por los tres claveros.

d) Pagos en metálico: Se autoriza la existencia de una Caja en efectivo para operaciones diarias que por su escasa cuantía resulta improcedente o poco operativo el ajustarse al procedimiento general de la gestión del gasto sin menoscabo de la eficacia y eficiencia del funcionamiento de los servicios municipales; y se nombra titular de dichos fondos a la Tesorera municipal, de cuya utilización deberá acreditar documentalmente la realización de dicho gasto mediante la aportación de las correspondientes facturas.

Los pagos serán percibidos por las personas físicas o jurídicas a favor de las que se haya aprobado el reconocimiento de la obligación salvo los casos de cesión de créditos o embargos decretados por órganos judiciales o administrativos.

EK\CV GAO-I-2022-01041

Halaber, eta salbuespen gisa, ordainketak sistema hauen bidez egin ahal izango dira:

a) Kontuko kargua: banku-helbideratzea ezarri den kasuetan aplikatuko da: Elkarkidetza, finantza-karga, rentinga, hornidurak, etab.

b) Kreditu-txartelak: Alkatearen udal-Kudeaketako joan-etorriek eragindako gastuei aplikatuko zaie, bai eta udal-Kudeaketako, garraioko, ibilgailuen erregai-hornidurako, autobide-ordainlekuetako, ostatu-ordainlekuetako eta abarretako gastuak bitarteko telematikoen bidez ordaintzeko ere, bai zinegotziei bai funtzionario baimenduei dagokienez. Baita ere, ordainketa mota honen bitartez tarteka gerta litezkeen ez-ohiko gastuak ordaindu ahal izango dira, betiere gastua egin behar duen teknikariak kontu-hartzailetzan baimena eskatu beharko du. Egoera zehatz honetan Diruzainak gauzatu beharko du ordainketa.

Diruzaintzak egingo ditu ordainketa-zerrendak, eta hilaren 5ean, 15ean eta 25ean ordainduko dira, salbuespenezko arrazoiengatik Alkatetzak beste data bat ezarri ezean.

Faktura guztiak, gehienez ere, 30 eguneko epean ordainduko dira, faktura hori udaleko kontu-hartzailetzako bulegoetan erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita. Langileen gastuek eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioek lehentasuna izango dute.

3. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA

*22. artikulua Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea.*

Batzuetan, gastu-espedienteetan izapide bat egiteak aurrekontua gauzatzeko zenbait fase metatzea ekar lezake, gastuaren izaera eta administrazio-ekonomiaren eta eraginkortasunaren irizpideak kontuan hartuta.

1. «AD» baimena eta xedapena.

Toki-erakundeak legez hartutako konpromisoetatik eratorritako gastuak baimentzea eta xedatzea, egin beharreko zerbitzuaren, obraren edo horniduraren kostua benetan ezagutzen denean.

a) Kontratu txikiak.

b) Aurreko ekitaldietan konprometitutako urte anitzeko gastuak.

c) Obra eta zerbitzu osagarriak.

d) Prezioen aldaketak, luzapenak eta berrikuspenak.

e) Esparru-kontratuen ondoriozko esleipenak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentrala.

f) Lankidetza-hitzarmenak.

g) Aldez aurretik hitzartutako mota guztietako errentamenduak.

h) Segidako traktuko kontratuak (garbiketak, instalazioen mantentze-lanak, etxez etxeko laguntza).

i) Izapidetze aurreratuko gastuak, aurreko ekitaldian gastu-konpromisoaren fasera arte iritsitakoak («D»).

j) Dirulaguntzak eta bestelako transferentzia arruntak edo kapital transferentziak, baldin eta aurrekontuetan izendunak badaude, hasieran edo kreditu-aldaketen bidez.

Kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren, organo eskudunak gastua baimendu eta xedatuko du, gastua gauzatzen hasi aurretik. Kasu bakoitzerako prozeduraz ezarritako dokumentuen edo formularioen ereduen bidez izapidetuko da.

Asimismo, excepcionalmente la realización material del pago podrá realizarse por los siguientes sistemas:

a) Cargo en cuenta: Aplicable a los casos en que se ha establecido la domiciliación bancaria: Elkarkidetza, Carga financiera, renting, suministros, etc…

b) Tarjetas de Crédito: Aplicable a los casos de gastos generados por los desplazamientos en gestiones municipales del Alcalde, así como para el pago a través de medios telemáticos de los gastos en gestiones municipales, de transporte, suministro de combustible a vehículos, peajes de autopista, alojamiento, etc., tanto de concejales como de funcionarios autorizados. Asimismo, mediante este tipo de pago se podrán sufragar los gastos extraordinarios que ocasionalmente se puedan producir, siempre que el técnico responsable del gasto solicite autorización en la Intervención. En esta situación concreta será la Tesorería quien se encargue del l pago.

Las relaciones de pago se elaborarán por la Tesorería y se pagarán los días 5, 15 y 25 de cada mes, salvo que por motivos excepcionales Alcaldía disponga otra fecha.

El pago de toda factura se realizará como máximo a los 30 días desde la fecha en que dicha factura sea registrada en las oficinas de Intervención del Ayuntamiento. Los gastos de personal y las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores tendrán la necesaria prioridad.

CAPÍTULO 3. PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO

*Artículo 22. Acumulación de fases de ejecución presupuestaria.*

En ocasiones, en los expedientes de gasto la realización de un trámite podría llevar asociada la acumulación de varias fases de ejecución del presupuesto, atendiendo a la naturaleza del gasto y a criterios de economía y agilidad administrativa.

1. Autorización y Disposición «AD».

Autorización y disposición de aquellos gastos derivados de compromisos legalmente adquiridos por la Entidad Local en que se conozca ciertamente el coste del servicio, obra o suministro a realizar.

a) Contratos menores.

b) Gastos plurianuales comprometidos en ejercicios anteriores.

c) Obras y servicios complementarios.

d) Modificados, prórrogas y revisiones de precios.

e) Adjudicaciones derivadas de contratos marco. Central de Contratación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

f) Convenios de colaboración.

g) Arrendamientos de todo tipo previamente concertados.

h) Contratos de tracto sucesivo (limpiezas, mantenimientos instalaciones, ayuda a domicilio…).

i) Gastos de tramitación anticipada, en los que se hubiese llegado en el ejercicio inmediato anterior hasta la fase del compromiso de gasto («D»).

j) Subvenciones y otras transferencias corrientes o de capital que figuren nominativamente asignadas en los presupuestos, inicialmente o mediante modificaciones de crédito.

Previo informe de Intervención el órgano competente procederá a la autorización y disposición del gasto, antes del inicio de la ejecución del gasto. Se tramitará mediante modelos de documentos o formularios establecidos procedimentalmente para cada caso.

EK\CV GAO-I-2022-01041

*23. artikulua Baimena, xedatzea eta obligazioa (ADO).*

Ondasun jakin batzuk eskuratzeak, bai eta kontratazio-prozesukoak ez diren beste gastu batzuk eskuratzeak ere, obligazioa berehala eska badaiteke, ADO dokumentua tramitatzea eragingo dute.

Ondorengo gastu motak izan daitezke.

— 500 € gainditzen ez dituzten kontratu txikiak eta material txikia eskuratzea.

— Dietak.

— Lokomozio gastuak.

— Berandutza interesak.

— Bestelako finantza gastuak.

— Funtzionarioentzako aurrerakin itzulgarriak.

— Langileen ordainsariak eta gizarte-kargak. Hileko nomina.

— Udalbatzako langileei itzuli beharreko aurrerakinak.

— Udal-taldeen asignazioak eta udalkideen dietak.

— Interesak eta zorraren amortizazioa.

— Justifikatu beharreko ordainketak.

— Transferentziak eta kapital-ekarpenak erakunde autonomoei eta udaleko merkataritza-sozietateei.

— Ondare-erantzukizuna.

— Hainbat gastu txiki: kanonak, protokolo eta ordezkaritza-arretak, notario-ordainsariak edo jabetza-erregistroko muga-zergak, premiazko konponketak, hondamendi naturalek eragindako gastuak etab.

— Kutxa finkoko aurrerakin gisa izapidetutako gastuak (halakorik balego).

Kontabilitatean egindako fakturen zerrendatik abiatuta izapidetuko dira, eta alkateak onartuko ditu.

*24. artikulua Pertsonaleko gastuak.*

Hilabeteko nominak izango dira hileroko ADO agiriaren euskarri.

Gizarte Segurantzari eta Elkarkidetzari ordaindu beharreko kuotek, halaber, ADO kontabilitate-agiriaren hileko justifikazio-euskarri gisa balioko dute.

Udalaren zerbitzura dagoen pertsonalak kalte-ordainak edo konpentsazioak jasotzeko, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak xedatutakoa aplikatuko da.

Udalaren zerbitzura dauden langileei kalte-ordaina edo konpentsazioa emango zaie, artikulu honetan ezarritako baldintzetan eta betekizunekin, honako kasu hauetan:

a) Zerbitzu-arrazoiengatik egindako joan-etorriak.

Zerbitzuagatiko joan-etorriak dira langileek beren ohiko eginkizunak betetzera behartuta daudenak, edo zirkunstantzialki agindutako zereginak betetzera behartuta daudenak. Zerbitzuagatiko joan-etorriak saileko buruek baimenduko dituzte.

Langileek kalte-ordain edo konpentsazio hauek jaso ahal izango dituzte:

1) Bidaia-gastuak: benetan gastatutako eta justifikatutako zenbatekoaren kalte-ordaina emango da, eta ibilgailu partikularra erabiltzen bada, 0,29 € kilometroko. Era berean, gastatutako eta justifikatutako aparkalekuen eta autobideko bidesarien gastuak ere ordainduko dira.

*Artículo 23. Aurtorización, disposición y obligación (ADO).*

Las adquisiciones de bienes concretos, así como otros gastos no sujetos a proceso de contratación en los que la exigibilidad de la obligación pueda ser inmediata, originarán la tramitación del documento ADO.

Pertenecen a estos grupos:

— Adquisición de pequeño material y contratos menores que no superen los 500 €.

— Dietas.

— Gastos locomoción.

— Intereses de demora.

— Otros gastos financieros.

— Anticipos reintegrables a funcionarios.

— Retribuciones y cargas sociales del personal. Nómina mensual.

— Anticipos reintegrables a personal al servicio de la Corporación.

— Asignaciones de grupos municipales y dietas a corporativos.

— Intereses y amortización de la deuda.

— Libramientos expedidos a justificar.

— Transferencias y aportaciones de capital a los Organismos Autónomos y Sociedades Mercantiles municipales.

— Responsabilidad patrimonial.

— Otros gastos diversos tales como tributos, cánones, atenciones protocolarias y representativas, honorarios notariales o aranceles de Registro de la propiedad, reparaciones de urgencia, gastos derivados de desastres naturales.

— Los gastos tramitados como anticipos de caja fija, (si los hubiera).

Su tramitación se realizará a partir de relaciones de facturas confeccionadas en contabilidad y que serán aprobadas por el Alcalde.

*Artículo 24. Gastos de personal.*

Las nóminas mensuales servirán de soporte al documento ADO mensual.

Las cuotas a la Seguridad Social y Elkarkidetza servirán, igualmente, como soporte justificativo del documento contable ADO de carácter mensual.

Se aplicará lo dispuesto en el Decreto 16/1993 de 2 de febrero, para la indemnización o compensación por razón de servicio del personal al servicio del Ayuntamiento.

Darán origen a indemnización o compensación al personal al servicio del Ayuntamiento en las condiciones y con los requisitos que se establece en este artículo, los siguientes supuestos:

a) Los desplazamientos por razones de servicio.

Son desplazamientos por razón de servicio los que el personal venga obligado a efectuar en el ejercicio habitual de sus funciones o por el desempeño de cometidos que circunstancialmente le hubieran sido ordenados. Los desplazamientos por razón de servicio serán autorizados por los Jefes de Departamento.

El Personal podrá percibir las indemnizaciones o compensaciones siguientes:

1) Gastos de viaje: Se indemnizarán por el importe realmente gastado y justificado, y en los casos de utilización de vehículo particular a razón de 0,29 € por kilómetro. Así mismo serán resarcidos los gastos de aparcamiento y peajes de autopista gastados y justificados.

EK\CV GAO-I-2022-01041

Oro har, garraiobide publiko kolektiboetan egingo dira joan-etorriak, salbu eta, kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan hartuta, norberaren ibilgailua edo beste baliabideren bat erabiltzea baimentzen bada.

2) Mantenu-dieta: mantenu-dietaren gehieneko zenbatekoa, agiri bidez justifikatu beharrekoa, 16 eurokoa izango da otordu bakoitzeko eta eguneko, eta 16 eurokoa afari bakoitzeko eta eguneko.

3) Ostatu-gastuak: ostatu-gastutzat hartuko dira logela eta gosari-gastuak. Ostatu-gastuengatik jasoko den gehieneko zenbatekoa benetan gastatutakoa eta justifikatutakoa izango da: 100 € pertsonako eta eguneko.

b) Prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroetara joatea.

Prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroetara joateak kalte-ordain hauek ematea ekar dezake:

1) Bidaia-gastuak: benetan gastatutako eta justifikatutako zenbatekoa ordainduko da, eta norberaren ibilgailua erabiltzen bada, 0,29 € kilometroko. Era berean, gastatutako eta justifikatutako aparkalekuen eta autobideko bidesarien gastuak ere ordainduko dira.

Oro har, garraiobide publiko kolektiboetan egingo dira joan-etorriak, salbu eta, kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan hartuta, norberaren ibilgailua edo beste baliabideren bat erabiltzea baimentzen bada.

2) Bazkari-gastuak: bazkari eta afari-gastuak ordaintzeko egunero sortzen den kopurua da, banaka hartuta. Otordu-gastuak benetan gastatutakoak izango dira, eta agiri bidez justifikatu behar dira. Justifikazio hori aurkeztu ezean, ez da ordainduko, eta gehienez ere izango da 16 € bazkaria eta eguneko.

3) Ostatu-gastuak: ostatu-gastutzat hartuko dira logela eta gosari-gastuak. Ostatu-gastuengatik jaso beharreko zenbatekoa benetan gastatutakoa eta justifikatutakoa izango da. Ostatu-gastuengatik gehienez 100 € jasoko dira pertsonako eta eguneko.

*25. artikulua Udalkideen esleipenak eta talde politikoentzako dirulaguntzak.*

Kide anitzeko organoetan bertaratzea: dedikazio esklusiborik ez duten Udalbatzarreko kideek Osoko Bilkuran onartutako ordainsaria jasoko dute beren udal jardueraren ordainetan, parte hartzen duten kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik.

